

# Hizkuntzaren erabilera lankidetzaren eta lehiaketaren harremanetan

**Lorena Gil de Montes, Garbiñe Ortiz Anzola, Jose Valencia**  
EHUko irakasleak

**Gün Semin**  
Free University Amsterdam

Ikerlanaren helburua komunikazio-testuinguruak mezuen hizkuntzaren egituraketan duen eragina aztertzea da. 125 parte-hartzailerik esan zitzaizkien lankidetzaren edo lehiaketaren eskatzen zuten ariketa bat egingo zutela ariketakide batekin. Ariketakideari buruzko informazioa eman zitzaizkien (bere jokabide positibo edo negatibo bat aurkeztuz) eta jokabide horren zergatia deskribatzeko eskatu zitzaizkien, kideak bere mezua irakurriko zuela (edo ez zuela irakurriko) jakinda. Emaitzen arabera, lankidetzaren egoeran, kidearen jokabide positiboak negatiboak baino modu abstraktuagoan deskribatzen zirela, kideari buruzko irudi positiboa emanez. Lehiaketaren egoeran, kontrako emaitzak jaso zirela, kideari buruzko irudi negatiboa igorritzen zirela. Emaitza horiek kideak mezua irakurriko zuela zehazki bakarrik jaso zirela. Eztabaidan komunikazio-testuinguruak mezuen egituraketan duen garrantzia azpimarratzen da. Emaitzek talde arteko hizkuntza-soslarako duen inplikazioen hausnarketa ere egiten da.

The objective of this study is to examine the role of the communication context in the structure of a message. 125 subjects were told that they would engage in an exercise involving cooperation or competition with a partner. They were given information about their partner (showing a positive or negative behavior) and they were asked to write down why they thought the behavior could have happened. In one condition they were told that the partner would read the message and in the other condition that he would not. Results show that in the cooperation condition, the partner's positive behavior is more abstractly described than his negative behavior, which transmits a positive image about the partner. In the competition condition the reversed pattern was obtained, so that a negative image about the partner was transmitted. The relevance of the understanding of the communication context on the way a message is structured is emphasized. The implications of the present study for the linguistic intergroup bias are also described.

## 1. Sarrera

Jendeak bizitzaren handia hizketan igarotzen du. Hitz egiten dugu lagunekin, ezagunekin eta ezezagunekin; etxean, lanean eta kalean. Hizketaldi horiek guztiak ez dira helbururik gabekoak, xede zehatzekoak baizik. Hizkuntza helburuak lortzeko asmoz erabiltzen dugu, batzuetan horren jabe ez garen arren. Erabiltzen dugun hizkuntza erregulatu edo manipulatu egiten dugu, eta horren bitartez entzuleen kognizioak, sentimenduak eta jokabideak eragin eta eraldatu egiten ditugu. Konbentzio linguistiko komunak modu egokian erabiliz lortzen da hizkuntzaren erabileraren erregulazioa. Askotan, hizlaria ez da jabetzen bere hitzen eraginaz, konbentzio linguistiko komun horiek jakintzat jotzen baititu. Dena den, komunikatzaileek mezuak sortzean, hizkuntza estrategikoki erabiltzen dute, helburu zehatzak lortzeko. Horrela, komunikatzaileek entzuleengan eragiten dute, bai beren kognizioak eraldatuz, baita beren sentimenduak bideratuz ere.

Badago mezuen egitura landu duen ikerkuntza-lerro bat, estereotipoen eta aurreiritzien helarazpenaren eta mantentzearen inguruko lanak barne dituen, hain zuzen (Maass, 1999). Artikulu honetan, aurrerago azalduko den moduan, ikerketamota honen helburua psikologia barneko prozesuak aztertzea da. Bigarrenik, komunikazio-testuingurua mezuaren egiturarekin lotuko dugu. Mezu baten moldaketa ulertu ahal izateko, komunikazio-testuinguruak definitzen duen mezuaren funtzioari arreta jarri behar zaio. Komunikazio-testuinguruaren alderdi garrantzitsua da hiztunaren eta entzulearen arteko harremana nola definitzen den (Krauss & Fussell, 1996; McCann & Higgins, 1992; Zajonc, 1960). Aipatutako harremana mezuaren egituraketa ulertzeko garrantzitsua da.

Artikulu honen helburu nagusia komunikazio-testuinguruak mezuaren egitura nola eragiten duen aztertzea da. Zehazki, komunikazio-testuinguruaren arabera mezu baten egitura nola eraldatzen den aztertzea da helburua. Komunikazio-testuingurua, alde batetik, hiztunak lortu nahi dituen helburuen arabera definitzen da eta, bestetik, hiztunak entzulearekin duen harremanaren arabera.

### 1.1. Talde arteko hizkuntza-soslaia

Talde arteko hizkuntza-soslaia (Maass, 1999; Maass, Salvi, Arcuri & Semin, 1989) mezuen egituraketa sistematikoki aztertu duen ikerketa-lerroa da. Lan horiek pertsonaren barneko prozesuen (motibazionalak eta kognitiboak) eta mezuen egitura linguistikoaren arteko erlazioa aztertu dute, estereotipoak mantentzen direnean. Talde arteko hizkuntza-soslaiaren inguruko lanek diotenaren arabera, komunikatzaileek norbere taldeko kideak deskribatzeko eta beste talde batzuetakoak deskribatzeko estrategia linguistiko ezberdinak erabiltzen dituzte. Norbere taldeko kideen jokabide positiboak deskribatzean (adib. *lagundu*) eta beste taldeetako kideen jokabide negatiboak adieraztean (adib. *jo*), hiztunek hizkuntzaren abstrakzio-maila altua erabiltzen dute (adib. *lagunkoia*, *borrokazalea*). Mezuaren egitura abstraktu horrek entzulearen interpretazioan eragiten du, egilearen jokabidea nortasun bereizgarriari dagokiela pentsatzera bultzatuz. Bestalde, norbere taldeko kideen jokabide negatiboak eta beste taldeetako kideen jokabide positiboak adieraztean, hiztunek estrategia linguistiko konkretu eta deskriptiboak erabili ohi dituzte (adib. *jo*, *lagundu*). Kasu horretan, hiztunak jokabide horiek zehatzak eta puntualak izango balira bezala deskribatzen ditu. Semin eta de Poot-ek (1997)

egindako lanek erakusten dutenez, abstrakzio-maila ezberdinek sistematikoki eragiten dute hartzaileek egindako inferentzietan. Mezu konkretuek testuinguruari buruzko inferentziak sortzen dituzte, eta mezu abstraktuek nortasunari buruzko inferentziak (inferentzia disposizionalak). Antzeko emaitzak lortu zituzten Wigboldus, Semin eta Spears-ek (2000), abstrakzio-maila ezberdinetako mezu estereotipikoek nortasunari buruzko inferentzietan duten efektua esperimentalki landu zutenean. Beren lanean, mezuaren egiturak hartzailearengan eragindako inferentziak bat zetozen mezuaren abstrakzio-mailak eragindakoekin. Areago, inferentzia horiek mezuaren abstrakzio-mailak tartekatzen dituela egiaztatu zuten.

Talde arteko hizkuntza-soslaia azaltzen duten bi prozesu ezberdin daude (Maass, Ceccarelli & Rudin, 1996; Maass, Milesi, Zabbini & Stahlberg, 1995). Prozesu horietako bat motibazionala da, eta identitate sozialaren teorian (Tajfel & Turner, 1979; 1986) oinarritzen da. Azalpen motibazionalak dio norbere taldearen identitatea mehatxatzen denean, norbere taldearen irudi positiboa mantentzen dela, hori ezeztatzeko informazioa egon arren. Mezuak konkretuago edo abstraktuago egituratuz (lehen aipatutako moduan) lortzen da irudi positiboa mantentzea. Azalpen hori frogatzen duten lanak norbere taldearen identitatea mehatxatzen duten talde arteko testuinguruetan egin izan dira (Franco & Maass, 1996; Maass *et al.*, 1989; Maass *et al.*, 1996; Maass, Corvino & Arcuri, 1994; Valencia, Gil de Montes, Arruti & Carbonell, 1997; Valencia, Gil de Montes, Sansinenea & Erdozia, 1998).

Talde arteko hizkuntza-soslaia azaltzen duen bigarren prozesua kognitiboa da. Maass-ek eta bere kideek (Maass, Milesi, Zabbini & Stahlberg, 1995) erakutsi dute espektatibekin bat datozen jokabideak (estereotipikoak direnak) espektatibekin bat ez datozenak (estereotipikoak ez direnak) baino maila abstraktuagoan deskribatzen direla. Espektatibekin bat ez datozen jokabideak (normatiboak ez direnak) arau orokorraren salbuespen gisa hautematen dira (Maurer, Park & Rothbart, 1995; Rothbart & John, 1985), eta ondorioz hizkuntzaren erabilera konkretuan islatzen dira. Aitzitik, espero diren jokabideak (estereotipikoak) ezaugarri egonkor eta tipikoak izango balira bezala hautematen dira eta, beraz, hizkuntzaren maila abstraktuan islatzen dira. Orain arte egindako ikerlanak aipatutako bigarren azalpenaren aldekoak dira (Maass *et al.*, 1995; Maass, Ceccarelli & Rudin, 1996; Rubini & Semin, 1994), espektatibekin bat datozen jokabide estereotipikoak bat ez datozenak baino modu abstraktuagoan deskribatzen direla argudiatuz. Gainera, prozesu horrek talde arteko testuinguruetan ez ezik, pertsona arteko testuinguruetan ere badu eragina (Maass, Milesi, Zabbini & Stahlberg, 1995). Aipatutako azken aurkikuntza horrek, talde arteko hizkuntza-soslaiaren azalpen kognitiboa fenomeno orokorra dela pentsarazten du.

## 1.2. Hizkuntza-kategorien eredua

Ikerketa-lerro honek hizkuntza-kategorien eredua (LCM – Semin & Fiedler, 1988; 1991) erabili du. Zenbait unitate linguistikoren (aditzak eta izenondoak) funtzio kognitibo orokorrak identifikatzeko diseinatu zen hizkuntza-kategorien eredua. Eredua honek mezuen egituraren ezaugarriak aztertzeko tresnak eskaintzen ditu, horien bidez mezuaren ekoizpen, egituraketa eta ulermenaren atzean dauden prozesu psikologikoak lantzeko (Semin, 2001a,b). Hizkuntza-kategorien eredua lau abstrakzio-maila bereizten ditu. Eredua baren barneko kategoriak honakoak dira:

ekintza-aditz deskriptiboak, interpretatiboak, egoera-aditzak eta izenondoak. Ekintza-aditz deskriptiboa hizkuntza-unitaterik konkretuena da. Horiek gertaera behagarri bakar bat deskribatzeko erabiltzen dira (A-k B jotzen du). Ekintza-aditz interpretatiboek ere gertaera zehatz bat deskribatzen dute. Halere, deskribatzaileak baino abstraktuagoak dira, jokaera zehatz eta konkretuaren ordeaz, jokaera orokorra deskribatzen baitute (A-k B-ri min egiten dio). Egoera-aditzak dira hurrengo abstrakzio-mailari dagozkionak. Egoera emozionalak deskribatzen dituzte (A-k B-ri gorroto dio). Kategoriarik abstraktuena izenondoak dira (A borrokazalea da). Izenondoak gertaera zehatz ezberdinetara orokortzen dira. Subjektua besterik ez dute deskribatzen (zehaztasun handiagorako ikus Semin & Fiedler, 1988).

### 1.3. Hizkuntzaren erabilera, helburura zuzendutako ekintza gisa

Talde arteko hizkuntza-soslaia aztertu duen ikerketa-lerroak estereotipoen igortzea erregulatzen duten prozesu kognitiboak eta motibazionalak heldu die; eta horretarako hizkuntzaren erabilera estrategikoa aztertu du. Talde arteko hizkuntza-soslaia helburua, beraz, gizabanakoaren barnea izan da. Hala ere, mezuaren egituraketan eragiten duten prozesu psikologikoak ez dira berez sortzen. Zaila da mezu baten funtzioa modu isolatuan irudikatzea, hau da, hartzaile zehatzik gabe eta prozesu psikologikoen produktu isolatu gisa. Beraz, suposa daiteke talde arteko hizkuntza-soslaia inguruko lanek inplizituki zilegizko hartzailea sortu zutela, mezu guztiak komunikazioa lortzeko diseinatzen baitira. Chiu, Krauss eta Lau-k (1998) hartzailearen rola kontuan hartu zuten, eta *entzuleriaren diseinua* deitu zioten entzule zehatzentzat egokitutako mezuen egituraketari. Modu berean, Higgins eta bere laguntzaileek (McCann & Higgins, 1992) sortutako *komunikazio-jokoa* delako garapen teorikoak komunikazioaren pertsona arteko izaera azpimarratzen du. Komunikazioa helburu bat duen interakzio soziala da, testuinguru sozialean gertatzen da eta arau eta konbentzio sozialek erregulatzen dute. Erregulazio horrek "errealitate banatua" ezartzen du eta banakako helburuak lortzeko balio du (Austin, 1962; Grice, 1975; Higgins, 1981; 1992; Krauss & Fussell, 1996; Searle, 1979). Beraz, hiztunaren eta entzulearen rolen moduko komunikazio-egoeraren ezaugarriek informazioaren irudikapenean eragiten dute (Higgins, McCann & Fondacaro, 1982; Zajonc, 1960).

Zenbait ikerketa arloko komunikazio-testuingurua aztertu dute hiztunaren eta entzulearen arteko harreman-motak aztertuz. Ikerketa-multzo horrek erakutsi du harreman kooperatiboek bateratasunera (konbergentziara) eramaten dutela; konpetizio- edo lehiaketa-harremanek, aldiz, aldentzera (dibergentziara). Bateratzea eta aldentzea islatzen duen aldagaia ikerlanaren helburuaren arabera eraldatzen da (Johnson, Johnson & Maruyama, 1984; Thibaut & Kelley, 1959; Turner, 1981). Deutsch-ek (1949; 1953) lankidetzaren helburuak, hiztunaren eta entzulearen arteko jarrera bateragarriekin lotu zituen, eta lehiaketa-helburuak jarrera dibergenteekin. Era berean, hizkuntza-egokitzapenaren teoriaren arabera, lankidetzaren eta lehiaketa-harremanek eragina dute komunikatzailearen doinuak edota hizkuntzak islatutako konbergentzia eta dibergentzia (Giles, Bourhis & Taylor, 1977; Giles & Smith, 1979; Giles, Taylor & Bourhis, 1973). Ikerketa horiek diotenez, testuinguru eleanizetan, hiztunen arteko harreman kooperatiboek edota konpetitiboek hizkuntzaren eta doinuaren erabilera eragiten dute. Ondorioz, doinuaren eta hizkun-

tzaren erabilera jarreraren indikatzaile gisa har daitezke. Talde arteko egoeretan, hiztunek beste taldeetako hiztunekin harreman konpetitiboak espero dituzte (Doise, Sinclair & Bourhis, 1976; Taylor & Royer, 1980); edota beste taldeetako kideek hiztunaren taldearekiko jarrera negatiboak izaten dituzte (Bourhis, Giles, Leyens & Tajfel, 1979). Hala gertatzen denean, hizkuntzaren aldentzea (dibergentzia) areagotu egiten da. Hori guztia Bourhis eta Giles-en (1977) lan klasikoan islatzen da. Ikerketaren testuingurua hizkuntza-laborategia izan zen. Bertan zegoen jendeak talde nazionalarekin eta galesarekin identifikazio-maila altua zuen eta galesa ikasten ari ziren. Galde-sorta bat banatzeko aitzakiarekin, doinu ingelesa zuen hiztun batek ikasleriaren jarrerak mehatxatu zituen, galesa etorkizunik gabeko hizkuntza zela eta hiltzear zegoela esanez. Suposatu zen horrelako esaldia ikasleriaren taldearen identitatearentzako mehatxagarria izango zela. Ondorioz, ikasleek areagotu egin zuten erantzunetan beren doinu galesa; galeseko hitz eta esaldiak sartzen zituzten esaldietan; emakume batek aditz bat gaizki ahoskatu zuen, eta abar. Beraz, ikasle horiek estrategia ezberdinak erabili zituzten, hizkeran eta jokabide ez-linguistikoan ere ezberdintasunak areagotuz; hori guztia beraien eta mehatxatu zituen pertsonaren arteko ezberdintasunak azpimarratzeko. Hizkeran eta jokaera ez-linguistikoetan ezberdintzeko erabilitako estrategia horiei aldentzea (dibergentzia) deitzen zaie. Beste batzuetan, ekintza eta estilo komunikatiboak ezberdintasunak murrizteko erabiltzen dira, batzuetan hizkeraren abiadura murriztuz, etenaldi luzeagoak eginez, esaldi luzeagoak sortuz edota barre eginez, begiraldia luzatuz eta abarren bidez. Estrategia horien bitartez jendea besteen jokabide komunikatiboetara egokitzen da. Levin eta Lin-ek (1988) konbergentziaren adibide interesgarria eskaintzen dute. Watergate epaiketan zegoela, badirudi John Deane-k fiskalekiko bateratasuna erakusten zuela, hitz formalen erabilera eraldatuz fiskalen arabera. Modu berean, Coupland-ek (1984) bidaia-agentzia bateko langile baten analisi fonologikoa egin zuen. Aztertutakoaren arabera, pertsona horrek bezeroekiko portaera konbergentea erakusten zuen, bezeroen estatus sozioekonomikoa eta hezkuntza kontuan hartzen zituelarik.

Hiztunak entzulearen jarrerak edo usteak kontuan hartzen dituenean ere mezuen konbergentzia edota dibergentzia gerta daiteke (Clark & Carlson, 1982; Fussell & Krauss, 1989a, b; McCann & Higgins, 1992). Gai hori *esatea ustea da* (saying is believing) delako ikerketa-arloan ere azaltzen da (Higgins & Rholes 1978). Lan horretan, hiztunen harremanak esperimentalki manipulatu ziren entzuleari egindako norbere aurkezpen positiboa areagotuz. Ikerketa horren arabera, hiztunaren eta entzulearen arteko mendekotasun-motak jendeak idatzitako mezuan eragiten du. Handik bi astera, mezua birgogoratzean, jendeak idatzitako mezua mendekotasunezko helburuari dagokiona da, nahiz eta helburu hori jadanik ez egon. Bi hitzetan, lan horrek eta beste batzuek diotenez, hiztunek beren mezuak eraldatzen dituzte entzulearen jarrerekin bat egiteko (Higgins & McCann, 1984; Higgins, McCann & Fondacaro, 1982; McCann, Higgins & Fondacaro, 1991).

Gure ikerketaren helburua komunikazio-testuinguruak mezuaren egituraketa linguistikoan duen eragina aztertzea zen. Helburu hau aurrera eramateko, hiztunaren eta entzulearen arteko harremana hartu behar da kontuan. Harreman hori garrantzitsua da, mezuaren sormena mugatzen baitu. Hiztunaren eta entzulearen arteko harremanean eragin dezaketen faktore desberdinak daude. Maila orokorrean, eta hiztunaren eta entzulearen rola ez badira kontuan hartzen,

komunikatzaileen arteko harremana kooperatiboa besterik ez da. Bestela, ez litzateke komunikaziorik egongo. Dena den, komunikatzaileen arteko harremana ulertzeko faktore gehiago hartu behar dira kontuan, hiztunen rolak kasu (emaztea/senarra, nagusia/langilea, norbere taldea/beste taldea). Gainera, zenbait testuinguruk ere hiztunaren eta entzulearen arteko harremana muga dezakete (kooperazioa eta konpetizioa). Lan honetan, ariketa batek sortutako lankidetzeta lehiaketa-harremanek mezuen egituraketan eraginik ote duten aztertu da. Alde batetik, harreman-mota horiek sortutako jarrerak norbere taldearen vs. beste taldearen arteko harremanek sortutakoen antzekoak dira. Bestetik, lankidetzeta eta lehiaketa sortzen dituzten mendekotasunezko harremanak talde arteko testuinguruan garatzen direnak baino orokorragoak dira. Izan ere, harreman-mota horiek talde arteko testuinguruetan nahiz pertsona arteko testuinguruetan azter daitezke.

Hiztunak eta entzuleak lankidetzeta- eta lehiaketa-testuinguruetan aztertzean hiru helbururi eutsi nahi genien: lehenik, kasu orokor bat sortu nahi genuen komunikazio-testuinguruak mezuen egituraketan duen eragina azaltzeko. Bigarrenik, talde-arteko hizkuntza-soslaia talde arteko testuinguruetan aztertu den bezala, guk fenomeno bera pertsona arteko mailara eramanez nahi genuen, horrela testuinguruaren eragina maila orokorragoan landuz. Azkenik, helburu nagusia mezuaren egituraren funtzioa aztertzea zen, hiztunak bere helburuak bideratzen dituen modua aztertzea, hain zuzen. Hori dela eta, hiztunak bere helburuak bideratzeko hizkuntza nola erregulatzen duen aztertu dugu. Jarraian, lankidetzeta- eta lehiaketa-testuinguruek hizkuntzan dituzten ondorioak azalduko ditugu, horrela hipotesiak formulatuz.

Sortzen den galdera honakoa da: komunikazio-testuinguruak nola eragiten du mezuaren egituraketan? Komunikazio-testuinguruek funtzioa ematen diete mezuei. Mezuaren egitura norberaren helburuak aurrera eramateko erabil daitezke. Lehiaketa-testuinguruan norberaren helburuak lortzeko eta aurkako kidearen helburuak oztopatzeko erabil daitezke. Lankidetzeta-egoeran, mezuak bi pertsonen artean ariketa egiteko baliabideak eman ditzake, eta helburu hori lortzeko modu egokia hartzaileari jarrera positiboak eta kooperatiboak igortzea da.

Lehiaketa-testuinguru komunikatiboetan, parte-hartzaileek kideen jokabide negatiboak deskribatzeko hizkuntza abstraktua erabiltzea espero genuen. Portaera positiboak, ordea, modu konkretuagoan deskribatzea espero genuen. Horretarako, subjektuek lehiakideari ezaugarri negatibo horiek iraunkorrak direla eta, berez, nortasunaren ezaugarriak direla komunikatuko zioten. Jokabide positiboak adierazteko, ordea, hizkuntza konkretua erabiltzean, adierazitako ezaugarria egoeraren menpe dagoela komunikatuko zuen; ez dirudi egonkorra, eta etorkizunean berriro errepikatze probabilitate txikia duelako susmoa sorrarazten du. Horrela, bi estrategia linguistiko horiek aurkako kidea oztopatzeko eta norbere aukerak hobetzeko bideak dira.

Lankidetzeta-egoeran, parte-hartzaileen helburua kidearekin harreman positiboa izatea da, horrela ariketan elkarrekin hobeto jarduteko. Beraz, kidearen jokabide positiboak deskribatzeko, mezuen egituraketa kidearen abstraktua izatea espero zen, eta jokabide negatiboak deskribatzeko konkretua, ordea. Hemen ezaugarri positiboak modu abstraktuan deskribatzean, ezaugarri horiek egonkorak eta nor-

tasunezkoak direla pentsarazten da. Ezaugarri negatiboaren deskribapen konkretuak, aitzitik, ez dela egonkorra, egoerari lotutakoa dela eta etorkizunean errepikatzeko probabilitate txikia duela helarazten du. Interpretazio inplizitu horiek kidearengan jarrera positiboa sorraraztea espero zen, ariketa irabazteko bidea zabalik utzirik.

Horiek hipotesi nagusiak dira, ñabardura bat erantsirik. Aipatutako hipotesiaren arabera, mezuaren egitura testuinguruak hiztunarentzat esanguratsua denean bakarrik eraldatzen da. Hala bada, komunikatzaileak testuinguruak eragindako funtzioa bere gain hartuko du eta mezua funtzio hori betetzeko erabiliko du. Hala ere, funtzio hori benetako komunikazioa gertatzen denean soilik gauza daiteke. Parte-hartzaileei esango balitzaie kideek ez dutela beraiek idatzitakoa irakurriko, orduan ez lukete funtziorik izango. Kasu horretan ezin da itxaron mezuen arteko ezberdintasun sistematikorik. Beraz, kontrol-baldintzan, non mezuak helburu komunikatiborik gabekoak ziren, ez zen mezuen arteko ezberdintasunik espero.

## **2. Metodoa**

### **2.1. Parte-hartzaileak**

Euskal Herriko Unibertsitateko ikasle ziren 19 gizonak eta 106 emakumeak hartu zuten parte ikerlanean (batez besteko adina 21). Parte-hartzaileak campusean bildu ziren eta 1000 pezeta (6 euro) jaso zuten beren lanarengatik. Parte-hartzaile guztiak ausaz esleitu ziren baldintzetara.

### **2.2. Diseinuaren eta aldagaien operatibizazioa**

Erabilitako talde arteko diseinu faktoriala honakoa zen: 2 (Komunikazioa: Bai vs. Ez) x 2 (Mendekotasun-mota: Kooperazioa vs. Konpetizioa) x 2 (Kidearen jokabidearen balentzia: Positiboa vs. Negatiboa). Menpeko aldagai nagusia hizkuntzaren abstrakzio-maila zen.

#### *Mendekotasun-motaren manipulazioa*

Ariketaren mendekotasun-motaren manipulazioa subjektuei argibide-mota desberdinak aurkeztuz gauzatu zen. Argibideek honela zioten:

Lan honetako zati nagusian, beste pertsona batekin lan egingo duzu. Lankidetzan (lehiaketan) egongo zara pertsona batekin, eta pertsona hau ondoko gelan dago zure zain. Pertsona honekin topatuko zara alde zurretiko galde-sorta bat bete ondoren. Pertsona honekin egin beharrekoa azalduko dizut. Trivial Pursuit moduko galde-sorta bat erantzun beharko duzu. Zure kidearekin elkartzen zarenean, 500 hitzeko testu bat jasoko duzu eta irakurri beharko duzu. Testu honek laguntza emango dizu Trivial Pursuit moduko galdera horiek erantzuteko. Orduan, bost minutu izango dituzu zure kidearekin batera (zuk bakarrik) galdera horiek nola erantzungo dituzuen (edo dituzun) planeatzeko. Ondoren, galderak erantzun beharko dituzue hiru minututan (galderak erantzun beharko dituzu eta amaitu zure kideak baino lehen).

Diru-kopuru estra jasoko duzu galdera guztiak ongi erantzuten badituzu (zure kideak baino lehen amaitzen baduzu). Ez baldin badituzu galdera guztiak erantzuten hiru minutu horietan (zure kideak baino lehen), galde-sorta bat bete beharko duzu, porrotaren zergatiak azalduz. Galde-sorta honek 10 minutu dirau.



Beste lan batzuetan oinarrituz, badakigu ezin izango dituzula galdera guztiak erantzun zure kidearekin ez baduzu kooperatzen (ez baduzu modu konpetitiboan jokatzeko). Gainera, ariketan izandako arrakastak ala porrotak zure ezagupen orokorrekin zerikusirik ez duela ere badakigu. Izan ere, arrakasta zu eta lankidearen arteko lankidetzaren menpe dago (zure lanaren eta kidearen lanaren konparaketaren menpe dago). Beraz, garrantzitsua da ariketa ondo planeatzea zure kidearekin kooperatzeko (konpetitzeko).

Gainera, parte-hartzaileek jasotako galde-sortek kideari «lankidea» deitzen zioten lankidetzako egoeran eta «aurkaria» lehiaketa-egoeran.

#### *Kidearen jokabidearen balentziaren (Positiboa vs. Negatiboa) manipulazioa*

Ondoren, kideari buruzko informazioa jasoko zutela esan zitzaizen. Zehazki, kideak parte hartu zuen aurreko lan batean, bere bizitzan suertatutako gertaera batzuk aipatu zituela esan zitzaizen. Eta ikertzaileek gertaera horietako bat hautatu eta marrazkilari batek gertaera hori marraztu zuela. Parte-hartzaileek marrazkia jaso zuten, eta gertaera horren zergati hipotetikoak idazteko eskatu zitzaizen. Hori egiteko 10 lerro eskaini zitzaizkien.

Kidearen jokabidearen balentzia manipulatzeko marrazki positiboak eta negatiboak behar ziren, baina denak tipikotasun-maila berekoak. Lan-piloto bat egin zen marrazkiak aukeratzeko eta lau aukeratu ziren (positiboak —pertsona bat beste bat besarkatzen edo pertsona bat beste batekin hizketan modu alaietan— eta negatiboak —pertsona bat beste bat jotzen eta pertsona bat beste bati buruz gaizki hitz egiten—). Lau marrazki horiek desberdinak ziren balentzian  $F(1,10) = 36.00$ ,  $p < .001$ . Gertaera positiboak ( $M=6.00$ ) negatiboak ( $M=2.4$ ) baino hobeto ebaluatu ziren zazpi puntuko Likert motako eskala batean.

#### *Komunikazio-helburuaren manipulazioa*

Komunikazio-egoeran, parte-hartzaileei beraiek idatzitako mezua kideari emango geniola esan zitzaizen ariketa hasi aurretik, eta seguraski mezu horrek kidearen jarduera-ariketan eragingo zuela. Komunikazio-helbururik gabeko egoeran, ariketaren amaierara arte mezua beraiek gordeko zutela esan zitzaizen. Orduan, nahi izanez gero kideari buruzko lehenengo inpresioak eralda zitzaketela.

#### *Menpeko aldagaiak*

*Mendekotasun-motaren manipulazioaren kontrola.* Bi galderak lankidetzako eta lehiaketa-egoeren manipulazioaren egokitasuna neurtzen zuten: «1. Noraino dauzue zure interesak eta zure kidearenak gatazkan ariketa egiterakoan? 2. Noraino datoz bat zure helburuak eta zure kidearenak?». Erantzunak 1etik 7rako Likert eskaletan eman ziren.

*Kidearen jokabidearen balentziaren kontrola.* Ondoko galderak egin ziren: «1. Nola ebaluatuko zenuke zure kidea orokorrean? 2. Nola ebaluatuko zenuke marrazkian ikusten duzun gertaera? 3. Nola ebaluatuko zenuke zure kidea marrazkian agertzen den gertaeran oinarrituz? 4. Zure ustez, nola ebaluatzen du zure kideak gertaera hori?». Galdera guztiak erantzun ziren 1etik 7rako Likert eskaletan.



*Mezuaren abstrakzio-maila.* Hizkuntza-kategorien ereduaren arabera kodifikatu zen deskribapen bakoitza (Semin & Fiedler, 1988, 1991). Kodifikazio-lan horretan, epaileen arteko fidagarritasuna nahiko altua izan zen (Cohen-en Kappa .70). Hortik, mezu bakoitzeko hizkuntzaren abstrakzio-indizea sortu zen (Semin & Fiedler, 1988). Subjektu bakoitzeko, indize hori honako formularen arabera kalkulatu zen da:

Abstrakzio-maila= [(Ekintza-aditz deskriptiboak+(Ekintza-aditz interpretatiboak x2)+(Egoera-aditzak x3)+(izenondoak x4)]/ (kategoria-kopuru osoa.)

Gainera, kategorien balentzia ere kodifikatu zen (positiboa, neutroa edo negatiboa) (Cohen-en Kappa .73).

### **2.3. Prozedura**

Esperimentua gehienez 20 pertsonako taldeetan egin zen. Parte-hartzaileek ezin zizkieten galde-sortak elkarri ikusi, banaturik baitzeuden. Esperimentuaren helburua ariketa bikoteka egiteko erabiltzen diren estrategien ikerketa zela esan zitzaien. Orduan, ondoko gelan itxaroten ari zen kide batekin ariketa bat egin beharko zutela esan zitzaien. Baita ariketa egin aurretik, alde zuretik galde-sorta bat beteko zutela ere. Ikerketa, bada, galde-sorta horren barruan zegoen.

Galde-sortan, lehenik ariketaren ezaugarriak deskribatu zitzaizkien, ariketaki-dearekin menpeko harremana sortuz (lankidetzeta edo lehiaketeta). Orduan, aurreko ikerlan batean ariketakideari buruzko informazioa jaso genuela esan zitzaien, eta beraiei suertatutako gertaera bat erakutsiko genituela marrazki baten forman. Marrazkian, kidearen jokabidearen balentzia manipulatu zen (positiboa edo negatiboa). Parte-hartzaileen eginbeharra beren (lankidetzeta ala lehiaketeta) kidearen jokabide positiboa (negatiboa) zergatik gertatu ote zen deskribatzea zen. Parte-hartzaile erdiei, ariketa egin aurretik beren kideek deskribapena irakurriko zutela esan zitzaien (komunikazio-egoera). Gainerakoei beren kideek deskribapena ez zutela irakurriko esan zitzaien (komunikazio-helbururik gabeko egoera).

## **3. Emaitzak**

### **3.1. Manipulazioen kontrola**

#### *Mendekotasun-motaren manipulazioaren kontrola*

Arlo honetako bi menpeko aldagai (hautemandako interesen gatazka eta hautemandako helburuen adostasuna) aztertu ziren 2 (komunikazioa: Bai vs. Ez) x 2 (mendekotasun-mota: Lankidetzeta vs. Lehiaketeta) x 2 (kidearen jokabidearen balentzia: Positiboa vs. Negatiboa) aldagai anitzeko MANOVAn. Mendekotasun-mota aldagai askearen aldagai anitzeko efektu nagusia esanguratsua izan zen, Pillais-en Traza balioa  $F(2,117) = 26.78$ ,  $p < .001$  izan zen eta. Aldagai bakarreko efektua hautemandako interesen gatazka menpeko aldagaiarentzat ere esanguratsua izan zen, baita hautemandako helburuen adostasunarentzat ere, bi Pillais-en Traza balioak  $F(1,118) = 39.15$ ,  $p < .001$  eta  $F(2,117) = 34.88$ ,  $p < .001$  izan baitziren. Emaitzen arabera, lankidetzeta-egoeran parte-hartzaileek interesen gatazka txikiagoa hauteman zuten ( $M=2.14$ ), eta beren helburuetan adostasuna hauteman

zuten (M=5.79). Aitzitik, lehiaketa-egoeran parte-hartzaileek beren interesen artean gatazka handiagoa hauteman zuten (M=4.08) eta beren helburuak ez zeudela ados (M=3.95).

### *Kidearen jokabidearen balentzia*

Parte-hartzailearen ikuspegitik hiru item planteatu ziren: «1. Nola ebaluatuko zenuke zure kidea orokorrean? 2. Nola ebaluatuko zenuke marrazkian agertzen den gertaera? eta 3. Nola ebaluatuko zenuke zure kidea marrazkian agertzen den gertaeran oinarrituz?». Hiru item horiek eskala batean laburbildu ziren, ezaugarri bera neurtzen ari zirela baitzirudien (Cronbachen alpha =.92). 2 (komunikazioa: Bai vs. Ez) x 2 (mendekotasun-mota: Lankidetza vs. Lehiaketa) x 2 (kidearen jokabidearen balentzia: Positiboa vs. Negatiboa) ANOVAK balentziaren efektu nagusi esanguratsua eman zuen,  $F(1,117) = 282.68$ ,  $p < .001$ ,  $\text{Eta}^2 = .707$ . Jokabide positiboek ebaluazio positiboak sortu zituzten (M= 6.10) eta jokabide negatiboek, berriz, ebaluazio negatiboak sortu zituzten (M=3.00). Gainera, mendekotasun-motaren efektu nagusi esanguratsua ere behatu zen,  $F(1,117) = 7.28$ ,  $p < .01$ ,  $\text{Eta}^2 = .058$ . Komunikazio aldagaiaren (Bai vs. Ez) eta mendekotasun-motaren arteko interakzio batek osatu zuen efektu hau,  $F(1,117) = 13.74$ ,  $p < .001$ ,  $\text{Eta}^2 = .105$ . Tuckey-ren HSD frogaren emaitzek parte-hartzaileek lankidetza-egoeran lehiaketa-egoeran baino modu positiboagoan ebaluatu zituztela kidearen jokabideak zehaztu zuten. Komunikaziorik gabeko egoeran, berriz, ezberdintasun hori ez zen agertzen (ikus 1. taula).

**1. taula: hartzailearen jokabidearen ebaluazioa, mendekotasun-motaren eta komunikazioaren arabera**

| Mendekotasun-mota |     | Lankidetza | Lehiaketa |
|-------------------|-----|------------|-----------|
| Komunikazioa      | Bai | 5,16       | 3,99      |
|                   | Ez  | 4,54       | 4,67      |

Oharra: Eskalaren tartea 1etik (negatiboa) 7rako (positiboa) da.

Bikotekidearen jokabidearen balentzia kontrolatzeko azken itema ere aztertu zen. Item horrek kidearen ikuspuntua islatzen zuen, eta hauxe galdetzen zuen: ea parte-hartzaileen ustez, bere kideak bere burua nola ebaluatzen zuen. 2 (komunikazioa: Bai vs. Ez) x 2 (mendekotasun-mota: Lankidetza vs. Lehiaketa) x 2 (kidearen jokabidearen balentzia: Positiboa vs. Negatiboa) faktore anitzeko ANOVAn aipatutako itema menpeko aldagai gisa erabili zen. Analisi horrek kidearen jokabidearen balentziaren efektu nagusi esanguratsua eman zuen,  $F(1,117) = 64.62$ ,  $p < .001$ ,  $\text{Eta}^2 = .356$ . Jokabide negatiboek ebaluazio negatiboagoa jaso zuten (M = 4.18) eta positiboek ebaluazio hobea (M = 6.09).

### **3.2. Mezuaren abstrakzio-maila**

Mezuaren abstrakzio-maila aztertu zen mendekotasun-motaren, jokabidearen balentziaren eta komunikazioaren arabera. Espero zen bezala, hiru faktore horien arteko interakzioa hizkuntzaren abstrakzio-mailan esanguratsua izan zen, F

(1,117) = 5.74,  $p < .05$ ,  $\text{Eta}^2 = .047$ . Interakzio hori komunikazioaren baldintza-rengatik gertatzen ote zen jakiteko, beste bi ANOVA egin ziren. Bat komunikazio-egoeraren barruan, eta bestea komunikaziorik gabeko egoeran. Lehenik, komunikazio-egoeran barne, balentzia eta mendekotasun-mota aldagaiekin egindako ANOVAn, interakzio-efektu esanguratsua behatu zen,  $F(1,57) = 8.73$ ,  $p < .005$ ,  $\text{Eta}^2 = .133$ . Komunikaziorik gabeko egoeran, faktore berdinekin egindako ANOVAn, ordea, ez zen efektu esanguratsurik lortu  $F(1,60) = .31$ , e.s.,  $\text{Eta}^2 = .005$ . Bigarren taulan ikus daitekeenez, komunikazio-egoeran, jokabide negatiboak lehiaketa-egoeran ( $M = 2.60$ ) lankidetza-egoeran ( $M = 2.21$ ) baino abstraktuago deskribatu ziren. Jokabide positiboan arteko ezberdintasunak ez ziren esanguratsutasun-mailara iritsi, baina espero zen norabidean zeuden. Gainera, lehiaketa-egoeran, jokabide positiboak jokabide negatiboak baino konkretuago deskribatu ziren. Azkenik, lankidetza-egoeraren joerazko efektua ere espero zen norabidean atera zen. Patroi orokor horrek hipotesi nagusia babesten du: mezuaren abstrakzio-maila sistematikoki eraldatzen da komunikazio-helburuaren arabera. Ez, ordea, komunikaziorik ez dagoenean.

**2. taula: abstrakzio-maila, mendekotasun-mota, jokabidearen balentziaren eta komunikazio-egoeren arabera**

| Komunikazioa                    |           | Bai        |           | Ez         |           |
|---------------------------------|-----------|------------|-----------|------------|-----------|
|                                 |           | Lankidetza | Lehiaketa | Lankidetza | Lehiaketa |
| Kidearen jokabidearen balentzia | Positiboa | 2.39       | 2.25      | 2.52       | 2.68      |
|                                 | Negatiboa | 2.21       | 2.60      | 2.41       | 2.46      |

Oharra: Balio altuek abstrakzio-maila altuagoa adierazten dute.

### 3.3. Katgoria positiboan eta negatiboan proportzioen batezbestekoak

Parte-hartzaileek idatzitako deskribapenetan hizkuntza-kategoriak positiboak ala negatiboak ziren kodifikatu zen. Ondorioz, parte-hartzaile bakoitzeko, katgoria positiboan eta katgoria negatiboan proportzioak lortu ziren. Katgoria positiboan eta negatiboan proportzioak errepikapen neurriko aldagai gisa ANOVA batean sartu ziren, mendekotasun-mota (Lankidetza vs. Lehiaketa) eta komunikazioa (Bai vs. Ez) bi subjektuen arteko aldagaiak zirelarik. Analisi horrek mendekotasun-motaren eta katgoria positiboan eta negatiboan proportzioen arteko interakzioa eman zuen, Pillaisen Trazaren balioa  $F(1,127) = 12.51$ ,  $p < .001$ ,  $\text{Eta}^2 = .086$  zelarik. Bestelako efekturik ez zen aurkitu. Hirugarren taulan ikus daitekeenez, lankidetza-egoeran zeuden parte-hartzaileek lehiaketa-egoeran baino katgoria positiboan proportzio handiagoa eta negatiboan proportzio txikiagoa erabili zituzten. Komunikazio-aldagaiarekiko interakziorik ez aurkitzeak honako hau adierazten du: parte-hartzaileek erabilitako katgoria positiboak eta negatiboak mendekotasunaren arabera direla, eta ez direla komunikazio-helburuaren arabera.

**3. taula: Katgoria positiboen eta negatiboen proportzioen batezbestekoak, mendekotasun-motaren arabera**

|            | Mendekotasun-mota | Lankidetzta | Lehiaketa |
|------------|-------------------|-------------|-----------|
| Kategoriak | Positiboak        | 0,44        | 0,31      |
|            | Negatiboak        | 0,24        | 0,35      |

**3.4. Abstrakzio-mailaren kobariante zilegiak**

ANCOVA baten bitartez, abstrakzio-mailan dauden desberdintasunak ez direla ebaluazioaren eraginez gertatzen adierazi nahi zen. Horretarako, bi kobariante-motak (kidearen jokabidearekiko jarrera eta deskribapenean erabilitako katgoria positiboen eta negatiboen proportzioak) abstrakzio-mailan eragiten zuten aztertu genuen.

Beraz, lehenago abstrakzio-maila aztertzeko erabilitako diseinua berriro erabili zen, eta kasu honetan kobariante desberdinek interakzioan zuten eragina behatu zen. ANCOVA bat egin zen komunikazio-egoeran, mendekotasun-mota (Lankidetzta vs. Lehiaketa) eta jokabidearen balentzia (Positiboa vs. Negatiboa) aldagai aske gisa, eta abstrakzio-maila menpeko aldagai gisa erabiliz. Gainera, kobariante gisa kidearen jokabidearekiko jarrera sartu zen analisisian. Emaitzen arabera, kobariante hori ez zen esanguratsua  $F(1,56) = .59$ , e.e.,  $Eta^2 = .010$ , eta gainera ez zuen jatorrizko interakzioan eraginik  $F(1,56) = 8.086$ ,  $p < .01$ ,  $Eta^2 = .126$  (eta jatorrizkoa, hau da, kobariante hori gabeko analisisian  $F(1,57) = 8.73$ ,  $p < .005$ ,  $Eta^2 = .133$ ).

Beste bi ANCOVA egin ziren aldagai aske eta menpeko aldagai berdinek erabiliz. Lehenengo analisisian katgoria positiboen proportzioa erabili zen kobariante moduan. Emaitzen arabera, kobariante hori esanguratsua zen  $F(1,56) = 1.748$ ,  $p < .001$ ,  $Eta^2 = .251$ , baina ez zuen jatorrizko interakzioan eraginik  $F(1,56) = 6.942$ ,  $p < .05$ ,  $Eta^2 = .11$ . Bigarren analisisian, katgoria negatiboen proportzioa erabili zen kobariante moduan. Kobariante horren efektua ez zen esanguratsua kasu horretan  $F(1,56) = 3.378$ ,  $p < .071$ ,  $Eta^2 = .057$ , eta berriro ere ez zuen efekturik jatorrizko interakzioan  $F(1,56) = 9.256$ ,  $p < .01$ ,  $Eta^2 = .142$ .

**4. Ondorioak**

Lan honetako emaitzak gure hipotesi nagusiaren aldekoak dira. Hitzunek euren helburuen lorpena bideratzeko egituratzen dituzte mezuak. Aldi berean, helburu hori entzulearekiko harremanaren arabera da. Beraz, testuinguru gatazkatsu batean, lehiaketa-testuinguruan gertatzen den bezala, hitzunek hartzailearen jokabide positiboa konkretuago adierazten dute eta jokabide negatiboa abstraktua. Lankidetzta-testuinguruan, berriz, jokabide negatiboak lehiaketa-testuinguruan baino modu konkretuagoan deskribatzen dira. Literaturak proposatzen duenez, mezu abstraktuek inferentziak sorrarazten dituzte, jokabidea nortasun-ezaugarri egonkorren ondorioa dela, eta etorkizunean berriro errepikatuko dela pentsaraziz (Maass *et al.*, 1989; Semin & Fiedler, 1988; Semin & de Poot, 1997; Wigboldus *et al.*, 2000). Jokabideen adierazpen konkretuek, ordea, jokabide hori testuinguruak

mugatua dela pentsarazten dute, errepikatzeko probabilitate txikia duela eta ezegonkorra dela.

Modu berean, abstrakzio-maila ezberdina duten mezuen hartzaileek inferentzia hauek egiten dituzte (Semin & de Poot, 1997; Wigboldus *et al.*, 2000). Beraz, lehiaketa-testuinguru gatazkatsuan, hiztunak diseinatzen duen mezuak kidearen jokabide negatiboa nortasunezko ezaugarria delako gertatu dela ulertarazten du. Jokabidea positiboa bada, orduan hiztunak duen asmoa jokabide hori gaitzestea da, jokabidea testuinguruko faktoreengatik gertatu dela esanez. Hiztunak eta hartzaileak lankidetzaharremana dutenean, hiztunak sortzen dituen mezuek harreman positiboaren irudia ematen dute. Jokabide positiboek nortasunezko ezaugarriak islatzen dituzte eta jokabide negatiboak testuinguruko faktoreengatik gertatzen dira.

Gainera, mezu-egituraketa berezi hau, parte-hartzaileek mezua kideari emango zaiola uste dutenean soilik gertatzen da. Bere mezuak kidearengan eraginik edukiko ez duenean (ez baitu irakurriko), orduan mezu-egituraketa berezirik ez da agertzen. Esan beharrekoa da, hizkuntzaren egiturazko ezaugarriak (abstrakzio-maila) balentzia negatibo eta positiboko kategoriak baino askoz ere eraginkorragoak direla. Balentziak soslai orokorra erakusten zuen mendekotasun-motaren arabera, mezua kideari emango zitzaion ala ez kontuan hartu gabe. Azkenik, kobariantza-analisisen emaitzetan agertzen denez, mezua ezaugarri estrukturalak eta balentzia ezberdineko kategoriak ez zeuden erlazonaturik. Emaitza horien arabera, mezua ezaugarriak (abstrakzio-maila) eta mezua aza-leko (edukizko) ezaugarriak (kategoria positibo eta negatiboak) elkarrekiko askeak dira, beste lan batzuetan agertu izan den bezala (Semin, 2001a; Semin & De Poot, 1997). Erlazio sistematiko falta horrek mezua bi ezaugarri hauek (egiturazkoak eta edukizkoak) modu ezberdinetan kontrolatzen direla pentsarazten du. Nahiz eta maila espekulatiboan, mezua ezaugarriak, ordea, era inplizituan kontrolatzen direla, eta azaleko (edukizko) ezaugarriak modu esplizituan kontrolatzen direla pentsa litekeen. Azken puntu hori galdera irekia da oraindik.

Lan honek komunikazio-testuinguruaren eraginez, mezua egitura sentikorra dela proposatzen du. Komunikazio-testuinguruaren, parte-hartzaileek egin behar zuten ariketa baten bitartez manipulatu zen. Ariketa horrek kide batekin lankidetzaren edo lehiaketa eskatzen zuen. Lankidetzaren edo lehiaketa-riketak parte-hartzaileen eta beren kideak izango zirenen arteko harreman-mota definitu zuen. Ariketak mezuak izango zuten funtzioa ere definitzen zuen. Komunikazio-testuinguruak batez ere mezua ezaugarri batean eragiten zuen, mezua abstrakzio-mailan, hain zuzen.

Ezaugarri hori, hots, mezua egitura, talde arteko hizkuntza-soslaiak aztertu du (Maass *et al.*, 1999). Talde arteko hizkuntza-soslaiaren eta lan honen arteko ezberdintasuna komunikazio-testuinguruaren datua. Izan ere, lan honek komunikazio-testuinguruaren mezu batek duen funtzio orokorra aztertu du. Lan honetan proposatutako ikuspuntuak eta lortutako emaitzek zenbait ondorio dituzte talde arteko hizkuntza-soslairako.

Lehenik, lan honek mezua egituraketaren inguruko gaia eremu orokorra-koan kokatzen duela uste dugu, batez ere talde arteko hizkuntza-soslaiaren inguruan egindako lanekin konparatuz gero. Sarreran esan dugun bezala, talde

arteko hizkuntza-soslaiak ez du komunikazio-testuingurua berez landu, ez kontzeptualki ezta esperimentalki ere. Bere kezka nagusia mezuaren egituraketaren oinarrian dauden psikologia barneko prozesuak argitzea da. Ikuspegi horren inplikazioak sistematikoki kontsideratzen badira, talde arteko hizkuntza-soslai fenomeno arraroa edo behintzat harrigarria dela pentsa daiteke. Komunikazio-helbururik ez dagoenean, gure lanaren kontrol-baldintzan gertatzen zen bezala, orduan mezuaren egituraketaren patroia sistematikorik ez dagoela ikusten da. Ideia horrek funtza du, horrelako testuinguru batean mezuak ez baitu funtziorik betetzen. Halere, talde arteko hizkuntza-soslai den efektu sistematikoa, komunikazio-helburu jakinik gabe lortzen da (Maass, 1999, Maass *et al.*, 1989, Maass *et al.*, 1995, Maass *et al.*, 1996, Franco & Maass, 1996, von Hippel, Sekaquaptewa & Vargas, 1997). Parte-hartzaileek mezuaren egitura diseinatzeke komunikazio-helbururik ez badute, mezuaren patroia egonkor hori (talde arteko hizkuntza-soslai) agertzea harrigarria da.

Gure ikuspuntutik, talde arteko hizkuntza-soslaiak bi zergati nagusi izan ditzake. Alde batetik, talde arteko hizkuntza-soslai estereotipoak adierazteko (Franco & Maass, 1996, von Hippel *et al.*, 1997) ondo aztertutako joera "automatikoa" izan daiteke, entzuleria egon ala ez (hau da, testuingurutik aske). Bigarren azalpena, gure ustez, zilegiagoa da. Talde arteko hizkuntza-soslai aztertu duten lanak talde arteko egoera oso gatazkatsuetan egin izan dira (Maass *et al.*, 1996), Sienako Palio lasterketak (Maass *et al.*, 1989) eta Euskal Herriko mugimendu politikoak (Valencia, Gil de Montes, Arruti & Carbonell, 1997), kasu. Egoera-mota horiek aurkako entzuleria inplizituki ziztatzen dute. Hori dela eta, norbere taldeko kideen jokabide positiboak modu abstraktuan deskribatzen dira, beste taldeetako kideen jokabide negatiboak bezala. Beste taldeetako jokabide negatiboak eta norbere taldeko jokabide positiboak, aitzitik, konkretuki komunikatzeko joera dago.

Lan honetan erabilitako ikuspuntua edozein mezuren osaketa-prozesuari egoki dakioken gai teoriko orokorra da. Gainera, hizkuntzaren erabilera estrategikoaren funtzioa ulertzeko balio du, estereotipoen igortze eta mantentze hutsa baino harago baitoa. Mezuaren ezaugarri estrukturalak komunikazio-testuinguruan sortzen diren funtzioak betetzen dituzte, hau da, helburu zehatzak lortu edo oztopatu egiten dituzte. Batzuetan (baina batzuetan soilik) helburu horiek estereotipoen mantentzea-rekin loturik daude. Gainera, psikologia barneko faktoreek ez ezik, hiztunaren eta entzulearen arteko harremanaren izaerak ere mezuaren egituraketan eragiten du.

Azkenik, lan honek zenbait galdera irekita uzten ditu. Esate baterako, mezuaren hartzailerek, komunikazio-testuinguru zehatz batean eta hiztunarekiko harreman jakin batekin, irakurri edo entzun dutena nola interpretatzen duten jakitea interesgarria izango litzateke. Galdera interesgarria izan liteke ea hartzailerek benetan inferentziarik sortzen duten mezuaren egitura oinarrituta. Beste galdera bat izan liteke mezuaren egituraren arabera, ea ondorio emozional edo motibazionalik dagoen hartzailereantz. Gure ustez, interesgarria izango litzateke mezuaren eragina aztertzea hartzailereantz ariketaren aurrean duen jokabidean. Galdera hauek guztiak eta beste batzuk irekita daude eta erronka bat dira etorkizunerako.

## 6. Erreferentziak

- Austin, J. L. (1962): *How to do things with words*, Harvard University Press, Cambridge, MA.
- Bourhis, R. Y. eta Giles, H. (1977): "The language of intergroup distinctiveness", in H. Giles (arg.), *Language, ethnicity and intergroup relations*, Academic press, Londres, 119-135.
- Bourhis, R. Y.; Giles, H.; Leyens, J. P. eta Tajfel, H. (1979): "Psycholinguistic distinctiveness: Language divergence in Belgium", in H. Giles eta R. St Clair (arg.), *Language and social psychology*, Blackwell, Oxford, 158-185.
- Chiu, C. Y.; Krauss, R. M. eta Lau, I. Y. M. (1998): "Some cognitive consequences of communication", in S.R. Fussell, R.J. Kreuz (arg.), *Social and cognitive approaches to interpersonal communication*, Lawrence Erlbaum Associates, Inc., Mahwah, NJ, USA, 259-276.
- Clark, H. H. eta Carlson, T. B. (1982): "Speech acts and hearers' beliefs", in N.V. Smith (arg.), *Mutual knowledge*, Academic press, New York, 1-36.
- Coupland, N. (1984): "Accommodation at work: Some phonological data and their implications", *International Journal of the Sociology of Language* **46**, 49-70.
- Deutsch, M. (1949): "A theory of co-operation and competition", *Human Relations* **2**, 129-152.
- , (1953): "Problems and progress of research in housing in its bearing upon race relations", *Inventory of Research in Racial and Cultural Relations* **5**, 65-95.
- Doise, W.; Sinclair, A. eta Bourhis, R. Y. (1976): "Evaluation of accent convergence and divergence in cooperative and competitive intergroup situations", *British Journal of Social and Clinical Psychology* **15**, 247-252.
- Franco, F. eta Maass, A. (1996): "Implicit vs. Explicit strategies of outgroup discrimination: The role of intentional control in biased language use and reward allocation", *Journal of Language and Social Psychology* **15**, 335-359.
- Fussell, S. R. eta Krauss, R. M. (1989a): "The effects of intended audience on message production and comprehension: Reference in a common ground framework", *Journal of Experimental Social Psychology* **25**, 203-219.
- , (1989b): "Understanding friends and strangers: The effects of audience design on message comprehension", *European Journal of Social Psychology* **19**, 509-526.
- Giles, H.; Bourhis, R.Y. eta Taylor, D. M. (1977): "Towards a theory of language in ethnic group relations", in H. Giles (arg.), *Language, ethnicity and intergroup relations*, Academic press, Londres, 307-348.
- Giles, H. eta Smith, P. M. (1979): "Accommodation theory: Optimal levels of convergence", in H. Giles eta R. St Clair (Arg.), *Language and social psychology*, Blackwell, Oxford, 45-65.
- Giles, H.; Taylor, D. M. eta Bourhis, R. Y. (1973): "Towards a theory of interpersonal accommodation through language: Some Canadian data", *Language in society* **2**, 177-192.
- Grice, H. P. (1975): "Logic and conversation", in P. Cole eta J.L. Morgan (arg.), *Syntax and semantics*, Academic Press, New York, 3. libk., 44-58.
- Higgins, E. T. (1981): "The 'Communication Game': Implications for social cognition and persuasion", in E.T. Higgins, M. Zanna eta C. Herman (arg.), *Social Cognition: the Ontario symposium*, Erlbaum, Hillsdale, NJ, 1. libk., 343-392.
- , (1992): "Achieving 'shared reality' in the communication game: A social action that creates meaning", *Journal of Language and Social Psychology* **11**, 107-125.



- Higgins, E. T. eta McCann, C. D. (1984): "Social encoding and subsequent attitudes, impressions and memory? Context driven and motivational aspects of processing", *Journal of Personality and Social Psychology* **47**, 27-39.
- Higgins, E. T.; McCann, C. D. eta Fondacaro, R. A. (1982): "The "communication game": Goal-directed encoding and cognitive consequences", *Social Cognition* **1**, 21-37.
- Higgins, E. T. eta Rholes, W. S. (1978): "Saying is believing: Effects of message modification on memory and liking for the person perceived", *Journal of Experimental Social Psychology* **14**, 363-378.
- Johnson, D. W., Johnson, R. eta Maruyama, G. (1984): "Goal interdependence and interpersonal attraction in heterogeneous classrooms: A meta-analysis", in N. Miller eta M. B. Brewer (arg.), *Groups in contact: The psychology of desegregation*, Londres, Academic Press, 187-212.
- Krauss, R. M. eta Fussell, S. R. (1996): "Social psychological models of interpersonal communication", in E.T. Higgins eta A.W. Kruglanski (arg.), *Social Psychology: Handbook of basic principles*, The Guilford Press, New York, 655-701.
- Levin, H. eta Lin, T. (1988): "An accommodating witness", *Language and Communications* **8**, 195-198.
- Maass, A. (1999): "Linguistic intergroup bias: stereotype perpetuation through language", in M.P. Zanna (Ed.), *Advances in Experimental Social Psychology*, Academic Press, California, 31. libk., 79-122.
- Maass, A.; Ceccarelli, R. eta Rudin, S. (1996): "The linguistic intergroup bias: Evidence for ingroup-protective motivation", *Journal of Personality and Social Psychology* **71**, 512-526.
- Maass, A.; Corvino, P. eta Arcuri, L. (1994): "Linguistic intergroup bias and the mass media", *Revue de Psychologie Sociale* **1**, 31-43.
- Maass, A.; Milesi, A.; Zabbini, S. eta Stahlberg, D. (1995): "The linguistic intergroup bias: differential expectancies or ingroup protection?", *Journal of Personality and Social Psychology* **68**, 116-126.
- Maass, A.; Salvi, D.; Arcuri, L. eta Semin, G. R. (1989): "Language use in intergroup contexts: The linguistic intergroup bias", *Journal of Personality and Social Psychology* **57**, 981-993.
- Maurer, K. L., Park, B. eta Rothbart, M. (1995): "Subtyping versus subgrouping processes in stereotype representation", *Journal of Personality and Social Psychology* **69** (5), 812-824.
- McCann, C. D. eta Higgins, E. T. (1992): "Personal and contextual factors in communication: A review of the 'Communication Game'", in G.R. Semin eta K. Fiedler (arg.), *Language, interaction and social cognition*, Academic Press, Cambridge.
- McCann, C. D.; Higgins, E. T. eta Fondacaro, R. A. (1991): "Primacy and recency in communication and self-persuasion: How successive audiences and multiple encodings influence subsequent judgements", *Social Cognition* **9**, 47-66.
- Rothbart, M. eta John, O. P. (1985): "Social categorization and behavioral episodes: A cognitive analysis of the effects of intergroup contact", *Journal of Social Issues* **41** (3), 81-104.
- Rubini, M. eta Semin, G. R. (1994): "Language use in the context of congruent and incongruent ingroup behaviors", *British Journal of Social Psychology* **33**, 355-362.
- Searle, J. R. (1979): *Expression and meaning: Studies in the theory of speech acts*, Cambridge University Press, Cambridge.
- Semin, G. R. (2001a): "Language as a cognitive and behavioral structuring resource: Question-answer exchanges", in W. Stroebe eta M. Hewstone (arg.), *European Review of Social Psychology*, argitaratzeaz.

- , (2001b): "Language and social cognition", in A., Tesser, eta N., Schwarz (arg.) *Handbook of Social Psychology*, Blackwell, Oxford, 1. libk., Intraindividual Processes, 159-180
- Semin, G. R. eta de Poot, C. J. (1997): "The question-answer paradigm: You might regret not noticing how a question is worded", *Journal of Personality and Social Psychology* **73**, 472-480.
- Semin, G. R. eta Fiedler, K. (1988): "The cognitive functions of linguistic categories in describing persons: social cognition and language", *Journal of Personality and Social Psychology* **54**, 558-568.
- Semin, G. R. eta Fiedler, K. (1991): "The linguistic category model, its bases, applications and range", in W. Stroebe eta M. Hewstone (arg.), *European Review of social psychology*, Chichester, John Wiley, 2. libk., 1-50.
- Tajfel, H. eta Turner, J. C. (1979): "An integrative theory of intergroup conflict", in W.S. Austin eta S. Worchel (arg.), *The social psychology of intergroup relations*, CA: Brooks/Cole, Monterey, 33-47.
- , (1986): "The social identity theory of intergroup behavior", in S. Worchel eta W.G. Austin (arg.), *Psychology of intergroup relations*, Nelson-Hall, Chicago, 7-24.
- Taylor, D. M. eta Royer, E. (1980): "Group processes affecting anticipated language choice in intergroup relations", in H. Giles, W.P. Robinson eta P.M. Smith (arg.), *Language: Social psychological perspectives*, Pergamon, Oxford, 185-192.
- Thibaut, J. W. eta Kelley, H. H. (1959): *The social psychology of groups*, Wiley, New York.
- Turner, J. C. (1981): "The experimental social psychology of intergroup behavior", in J.C. Turner eta H. Giles (arg.), *Intergroup behavior*, Basil Blackwell, Oxford, 66-75.
- Valencia, J. F.; Gil de Montes, L.; Arruti, I. eta Carbonell, A (1997): "El sesgo lingüístico intergrupar: El efecto de la valencia de los verbos interpersonales", *La Revista de Psicología Social* **13 (11)**, 117-130.
- Valencia, J. F.; Gil de Montes, L.; Sansinenea, E. eta Erdozia, G. (1998): "Komunikabideak eta talde arteko mintzaira soslaia: Picassoren 'Guernica' Bilboko Guggenheimeira ekartzearen inguruko polemika", *Uztaro* **17**, 3-12.
- Von-Hippel, W.; Sekaquaptewa, D. eta Vargas, P. (1997): "The linguistic intergroup bias as an implicit indicator of prejudice", *Journal of Experimental Social Psychology* **33**, 490-509.
- Wigboldus, D.; Semin, G.R. eta Spears, R. (2000): "How do we communicate stereotypes? Linguistic bases and inferential consequences", *Journal of Personality and Social Psychology* **78 (1)**, 5-18.
- Zajonc, R. B. (1960): "The process of cognitive tuning and communication", *Journal of Abnormal Social Psychology* **61**, 159-167.